

3. IKASGAIA

GANBIO-LETRAREN ONARPENA ETA ZIRKULAZIOA

Laburpena

1. ONARPENARAKO AURKEZPENA
 - 1.1. Derrigorrezko aurkezpena
 - 1.2. Aurkezpena debekatua
 - 1.3. Onarpenarako aurkezpena egiteko garaia eta forma
2. ONARPENA
 - 2.1. Onarpena igortzeko epea eta forma
 - 2.2. Ondorioak
 - 2.3. Onarpen-gabeziaren ondorioak
3. GANBIO-LETRA TRANSMITITZEKO MODUAK
4. OSOKO ENDOSUA
 - 4.1. Formazko ukanbeharrak eta supostu bereziak
 - 4.2. Funtzioak
5. ENDOSU MUGATUAK
 - 5.1. Ahalordetzeko endosua
 - 5.2. Bermezko endosua

1. ONARPENARAKO AURKEZPENA

Ganbio-letrak izan behar dituen adierazpenen artean igorpenduaren izena aurkitzen da, baina ez bere sinadura. Igorpenduak ganbio-letra ordaintzeko agindua jasotzen du, baina ez dago ordainketa egitera behartuta eta ez dago ete letra onartzera behartua. Igortzailearekin duen azpiko harremanaren arabera obligazioa hartu du, baina obligazio hori erabat extraganbiarioa da. Igortzaileak azpiko harremanean hartutako obligazioa galda diezaioke, akzio kausalaren bitartez, baina ez du bere aurkako akzio ganbieriorik. Onarpena egitearekin igorpendua obligatu ganbiario bihurtzen da (LCCh 33.art.). Orduan letraren edukitzaileak bere aurka *akzio ganbiario zuzena* izango du, protestoa altxa beharrik gabe (LCCh 49.I art.).

Onarpena ez da letraren baliozkotasunerako ukanbearra. Ganbio-letra askok onarpenik gabe zirkulatzen dute. Baina onarpena izateak letrari balio erantsia ematen dio eta bere gaineko konfidantza areagotzen du, obligazio ganbarioen eremura beste subjektu bat gehitzen duelako. Horregatik trafikoa zenbait alorretan letrak onarpenarekin jaio eta entregatu ohi zaizkio edukitzaileari.

Hala gertatzen ez denean, edukitzaileak igorpenduaren asmoen berri izan nahiko du, alegia, egin zaion ordainketa-agindua betetzeko prest ote dagoen jakin nahiko du. Edukitzailearen interes hau eskubide bihurtu du legeak (LCCh 25. art.). Edukitzaileak eskubidea du, mugaeguna baino lehen letra onar dezan aurkezteko igorpenduari bere helbidean. Honekin ordainketa-agindua beteko duenaren promesa lortu nahi du. Usu, igortzailea (edo agian letraren hartzailea) izango da ganbio-letraren onarpena lortu nahi duena. Onarpenak ganbio-letra indartu egiten du. Onartuta dagoen letrarekin ere inpaguak gerta daitezke noski baina, behintzat, badago zuzeneko obligatu ganbario bat. Hau dela eta sortu dira praxian *ordaindugabeko letra ez onartuen erregistroak*.

Gerta daiteke ere letra batetan igorpendu anitz izatea. Orduan, besterik adierazi ezean, onarpenerako aurkezpena edonori egin dakioko. Letra aurkeztu izan zaionak onarpena ukatuz gero, edukitzailea dagozkion akzietaz baliatu ahal izango da, gainontzeko beste inori letra aurkeztu beharrik izan gabe (LCCh 31.art.). Legez ez dago ganbio-letra onarpenerako beste igorpenduei aurkezteko obligaziorik. Baten ezezkoa nahikoa da edukitzaileak atzerabideko akzioa jarri ahal izateko (LCCh 50.II art.)

1.1. Derrigorrezko aurkezpena

Esan bezala, arau orokorra da ganbio-letra onarpenerako aurkeztea ez dela derrigorrezkoa. Onarpenaren aurkezpena egitea edukitzailearen eskubidea da. Baina badaude salbuespenak. Kasu batzutan onarpenerako aurkezpena egitea derrigorrezkoa da, obligazio bihurtzen da. Kasu hauetarako legeak ez du aurrikusten letra onarpenerako aurkeztea galdatzeko akzio judizialik. Baina letra ordainketarako aurkeztu ez izana zigortu egiten du, atzerabideko akzioak murriztu edo galtzea ekartzen du.

Batzutan ganbio-letra ordainketarako aurkeztu beharra (obligazioa) legeak ezartzen du. Hau gertatzen da mugaeguna zehazteko '*erakusten denetik epe bat*' ezartzen denean (LCCh 27.art. '*a un plazo desde la vista*'). Epe jakin hori

kontatzen hasteko beharrezkoa da letra '*erakustea*', hau da, onarpenerako erakustea edo aurkeztea. Orduan epea kontatuko da onarpena egiten den egunetik aurrera (LCCh 40.I art., lk. ere 29.II art. '*...a no ser que el protador exija que se fije la fecha del día de presentación...*') eta onarpenik ezean, protesta edota deklarazio baliokidea egiten denetik aurrera (LCCh 51.II art.). Horregatik ulergarria da onarpenerako aurkezpena egitearen galdapen hau eta onarpena edota onarpen-ezaren data ezarri behar izatea epea kontatzen hasteko. Ganbio-letra hauek onarpenerako aurkezteko dagoen denbora ez da mugagabea. Besterik esan ezean, aurkezpena egiteko legez urte bete dago (LCCh 27.art.). Hala ere epe hau molda dezake igortzaileak (laburtu edo luzatu dezake, LCCh 27.II art.) bai eta endosugileek ere (laburtu dezakete, 27.III.art.). Dena den, legez ezarritako derrigorrezko aurkezpenaren inguruan zenbait gorabehera gerta daitezke. Ikus ditzagun supostu desberdinak eta beren ondorioak.

- Gerta daiteke ganbio-etra onarpenerako aurkeztu da eta onartua izatea, baina onarpenaren datarik ez ezartzea. Kasu horretan ezinezkoa da epemuga zehaztea. Orduan edukitzaileak hutsune hau adierazi behar du eta horretarako duen bidea protesta edo deklarazio baliokidea egitea da (LCCh 29. II.art.). Bestela, onarpenaren datarik gabe eta protestorik (edo deklarazio baliokiderik) ezean, onarpenaren aurkezpena egiteko epearen azken egunean eman zela uste izango da (LCCh 40.II. art.).
- Gerta daiteke ere ganbio-letra onarpenerako aurkeztea baina onarpenik ez lortzea. Orduan protesta edo deklarazio baliokidea egin beharko da eta horren data hartuko da abiapuntu epea zehazteko (LCCh 40.I art.). Baina, kasu honetan protestorik altxatuko ez balitz, edukitzaileak atzerabideko akzio guztiak galduko lituzke (LCCh 63.I.b.art.).
- Azkenik esan, ganbio-letra onarpenerako ez aurkeztuko ez balitz, edukitzaileak atzerabideko akzio guztiak galdu egingo lituzkela (LCCh 63.I.a.art.).

Ganbio-letra onarpenerako aurkezteko obligazioa interesatuek ere (igortzaileak, endosugileek) beren borondatez ezar diezaiokete edukitzaileari (LCCh 26. art. I eta IV, '*derrigorrezko onarpena*', '*contra aceptación*', klausula bidez). Honen helburua izaten da igorpenduak ordainketa egiteko zein asmo duen jakitea. Kasu honetan aurkezpena egiteko epea ezar dezakete igortzaileak edota endosugileak (LCCh 26. I eta IV art.). Baita ere igortzaileak data jakin baten

aurretik aurkezpena egitea debeka dezake (LCCh 26. III art.). Hemen ere letra onarpenerako aurkezteko obligazioa ez betetzeak baditu bere ondorioak.

- Epea igortzaileak ezarritakoa bada, atzerabideko akzio guztiak galduko ditu edukitzaileak (onarpen-ezagatikoa eta ordainketa-ezagatikoa) (LCCh 63.II art.). Dena den, supostu honetan gerta daiteke klausula berezi bat sartu izana, adibidez: *‘Martxoaren 1aren ondoren egindako aurkezpenean onarpena ukatzearen erantzukizunik gabe’* (*‘sin mi responsabilidad por la denegación de la aceptación por presentación posterior al 1 de marzo’*). Kasu honetan, letraren onarpenerako aurkezpena ez egiteak edukitzaileari onarpen-ezagatiko atzerabideko akzioa galtzea ekarriko dio, baina ordainketa-ezagatiko atzerabideko akzioa gordeko du (LCCh 63.II art. *in fine*).
- Demagun epea endosugile batek ezarri duela eta edukitzaileak ez duela letra onarpenerako aurkeztu epe barruan. Kasu honetan, edukitzaileak galduko ditu soilik endosugile horren kontrako atzerabideko akzioak (LCCh 63.III art.). Dena den, kontuan izan behar da, lehen azaldu den bezala, supostu hauetan ere gerta daitekela: onarpena lortzea datarekin edo datarik gabe eta, kasu honetan, protesta egitea (LCCh 40.I art.) edo protestorik ez egitea (LCCh 40.II art.). Eta gerta daiteke ere onarpenik ez lortzea eta orduan protesta egitea edo ez egitea (LCCh 63.I.b art.). Egoera guzti hauen ondorioak lehen aztertu ditugu.

1.2. Aurkezpena debekatua

Igortzaileak letra onarpenerako aurkeztea debekatu egin dezake dagokion klausula ezarriaz (*‘onartu ezinekoa’*, *‘ez onargarria’*, *‘no acceptable’*) (LCCh 26.II art.). Halako klausulak helburu desberdinak izan ditzake, esate baterako: onarpen-ezagatiko protestoaren gastuak aurrezteak; igortzailea igorpenduari hornidura egitera ez fortzatzea edota, igorpenduaren kaudimena oso zihurra ez bada, onarpenaren aurkezpenarekin presiorik ez egitea. Dena den, debekua izanda ere edukitzaileak letra onarpenerako aurkeztuko balu, zein ondorio izango luke horrek? Ondorioak desberdinak dira onarpena lortzen denean eta lortzen ez denean. Onarpena lortuz gero, erabateko balioa dauka. Baina onarpenik lortuko ez balitz edukitzaileak ezingo luke onarpen-ezagatik atzerabideko akziorik jarri (egoera LCCh 11.artikuluaren antzekoa da).

Debekuzko klausula hauek ezartzea ezinezkoa da kasu bitan: erakusten direnetik epe batetara ordaindu beharreko letratan (LCCh 26.II art.), lauetan aurkezpena egitea funtsezkoa da (onarpena lortu ala ez) mugaeguna zehaztu ahal izateko, eta hirugarren baten helbidean edota igorpenduarena ez den beste herri batetan ordaindu beharreko letratan (LCCh 32. art.). Hauetan aurkezpenaren bidez igorpenduari garaiz jakinarazi nahi zaio ordainketa galdatuko zaiola.

Gainera, posible da ere onarpena egitearen debekua epe batetarako ezartzea (LCCh 26.III.art.). Adibidez, honako klausula ezarriaz: *‘Maiatzaren 2ra arte onartu ezinezkoa’* (*‘No aceptable hasta el 2 de mayo’*)

1.3. Onarpenarako aurkezpena egiteko garaia eta forma

Aurkezpena egiteko garaiari dagokionez, erregela orokorra da mugaegunera arte denbora dagoela (LCCh 25.art. in fine). Baina ondoren egin ezker ere onarpena baliozkoa izango da. Dena den, denbora aldetik, zenbait mugapen egotea gerta daiteke: igortzaileak epe batetan aurkezpena egitea debeka dezake (LCCh 26.III art.); igortzaileak nahiz endosugileek aurkezpenerako epea ezar dezakete (LCCh 26. I eta IV art.) eta erakusten direnetik epe batetara ordaindu beharreko letratan denborazko mugapen batzuk daude legez edo interesdunek ezarritakoak (LCCh 27. art.).

Formazko ukanbeharrei dagokienez, berriz, onarpenerako aurkezpena egin behar da igorpenduaren helbidean (LCCh 25. art.). Baina ez dauka letra igorpenduaren eskutan uzteko obligaziorik (LCCh 28.II art.). Legean badago bitxikeria bat eta da igorpenduak letra onarpenerako bigarren aldiz (lehenego aurkezpenaren hurrengo egunean) aurkeztea eska diezaiokela edukitzaileari (LCCh 28.I art.). Ondorioz, protesta egiteko epea egun bat gehiago luzatuko dela ulertzen da (LCCh 51. III. art.). Horretarako igorpenduak bigarren aurkezpenaren eskakizuna letran bertan adierazi behar du. Bestela, edukitzailea bigarren aurkezpena egitera ukatuko balitz eta eskakizuna adierazi gabe balego, ezingo luke haren obligazioaren ez-betetzeagatik kalte-ordainik eskatu eta atzerabideko obligatuek ere ezingo lukete bigarren aurkezpena egin ez denaren (*exceptio*) salbuespenik jarri.

2. ONARPENA

Igorpendua obligatu ganbiario bihurtzen da onarpenaren deklarazioa eginez (sinatuaz) eta letra entregatuaz igortzaileari edo edukitzaileari. Onarpena ez da borondatezko adierazpen arrunta, adierazpen ganbioarioa baizik, beraz ez dago onarpenak sortzen dituen ondorio ganbiarioak erabakitzerik, hauek legez ezarrita daude. Honen bidez igorpenduak ganbio-letra mugaegunean ordaintzeko obligazioa hartzen du (LCCh 33. art). Berak erabakitzen duen bakarra zera da, obligazioa bereganatzea edo igorpendu bezala jarraitzea. Onarpeneko egintza burutzeko borondatea izatea behar da soilik.

Onarpenak baldintzagabekoa izan behar du, baina onarpena partziala posible da, hots, kopuruaren zati bat (LCCh 30.I art.). Kasu horretan, onartzaileak kopuruaren araberako obligazioa hartzen du. Horrek esan nahi du, edukitzaileak onartu ez den kopuruagatik atzerabideko akzioa tartera dezakela. Aldiz, onarpena ezin da baldintzatu izan (adibidez, *'hornidura eskuratuz gero ordainduko dut'*). Onarpenaren deklarazioan baldintzak ezartzea onarpena ez ematearen parekoa da, beraz edukitzaileak onarpen-ezagatik atzerabideko akzioa jartzeko aukera izango du (LCCh 50.II.a art). Ez da posible letraren exekuziorako baldintzei buruzko aldaketarik ezartzea (adibidez, ordainketa-eguna, ordainketa-modua: *'onartzen dut salgaiekin ordaintzea'*, *'onartzen dut halako dibisatan ordaintzea'*, *'onartzen dut halako egunetan ordaintzea'*). Baina onartzailearen batek halako aldaketarik ezarriko balu, adierazitako moduan obligatua geratuko litzateke (LCCh 30. II. art.).

Onarpena erreboka ezina da. Esan dugu onarpenaren bidez igorpendua obligatu ganbiario bihurtzen dela, letra sinatu eta edukitzaileari entregatzen dionetik. Beraz, ordura arte (entregatu arte) posible da errebokazioa egitea, onarpenaren gainean zirriborroa, onarpena baliogabetuaz. Aldiz, letra erreboka ezina izango da edukitzaileari entregatzen zaionetik aurrera (LCCh 34.I art.). Kontuan hartu behar dugu obligazioa ez dela sortzen sinadura egiten den momentuan bertan. Berriz ere azpimarratu nahi dugu *inter partes* obligazio ganbiarioa entrega-kontratutik sortzen dela, ez duela aldebakarreko obligazioaren izaerarik. Aurrekoari jarraituaz, errebokazioa letran zirriborro bat edo bestelako zeinu bat ezarriz egiten bada, entregatu aurretik egin izan dela suposatuko da. Baina onarpena norbaiti idatziz jakinarazi izan bazaio, errebokazioak ez du harekiko efekturik izango (LCCh 34.II art.).

2.1. Onarpena igortzeko epea eta forma

Legeak formula bat ezartzen du onarpena egiteko, alegia, '*onartzen du*' edo pareko formula adierazi behar da eta igorpenduak sinatu behar du, berak edo bere ordezkariaren batek baina ez beste inork. Honen inguruan legeak presuntzio bat ezartzen du: letraren aurrekaldean igorpenduaren sinadura agertzen bada, onartu egin duela uste izango da (LCCh 29. I. art.).

Horretaz gain, badaude zenbait arau osagarri igortzaileak ordainketa-leku bezala igorpenduaren helbidea ez den beste bat adierazten duenerako (Ik. LCCh 32. art.)

Supostua: igortzaileak letran ezar dezake ordainketa leku bat, igorpenduaren helbidea ez dena, adierazi gabe ordainketa egitea nori eskatu behar zaion.

Onarpenerako epeari dagokionez, normalena da onarpena mugaegun bitartean egitea (LCCh 25.art.). Dena den, kontuan izan behar da, legez edota interesatuen borondatez, zenbait kasutan, epe jakin baten barruan, onarpenerako aurkezpena egitea derrigorrezkoa izan daitekela (LCCh 26 eta 27. art.).

2.2. Onarpenaren ondorioak

Onarpenaren efektua zera da: igorpendua obligatu ganbiario bihurtzen dela (LCCh 33.art.). Baina obligazio honek baditu zenbait berezitasun, bereziki, onartzailea obligatu zuzena izatearena (LCCh 49. art.) eta ez atzerabidekoa. Atzerabidez obligatu direnek ordaindu behar dute igorpenduak/onartzaileak onartzen/ordaintzen ez duenean. Onartzaileak aldiz, obligazio propioa hartzen du bere gain.

Edukiztaileak ordaintzen ez duen onartzailearen kontra akzio ganbiario zuzena dauka eta hau egikaritzeko ez da protestorik altxatu behar (LCCh 49 art.). Ondorioz, ez dago kazio hau galtzeko arriskurik, atzerabideko akzioarekin gertatzen denaren ez bezala (LCCh 63. art.).

2.3. Onarpen gabeziaren ondorioak

Letra onartzea edo ez igorpenduaren borondate askeari dagokio. Baina letra onartzen ez bada, edukiztaileak ez du akzio ganbiario zuzenik ordainketa

erreklamatzeko. Letraren onarpen-gabeziak deskreditua dakar berekin, ordainketa-agindua eman izan zaion pertsonak ez ordaintzeko intentzioa duela adierazten bait du. Horregatik onarpena ukatzeak edukitzaileari atzerabideko akzioa tarteratzeko aukera ematen dio (atzerabideko akzioa onarpen-ezagatik), mugaeguna iritsi aurretik, ordainketa erreklamatzeko (LCCh50.II.a art.).

Onarpen-ezagatiko atzerabideko akzioa ere protestoa edo deklarazio baliokidea egitearen baldintzapean dago (LCCh 63.II.b art.). Bada salbuespen bat, 'gasturik gabe' klausula ezartzea, orduan ez da protestorik egin behar (LCCh 56. art.).

Protesto edo baliokidea den deklarazioarekin lortu nahi da fede ematea onarpena ukatu izan dela (LCCh 51.I art.) edota, onarpena beharrezkoa den kasutan, ez dela onarpenaren datarik ipini (LCCh 29.II art.). Oro har, behar bezala protestoa edo deklarazio baliokiderik egiten ez bada, edukitzaileak atzerabideko obligatu ganbarioei onarpenik eza erreklamatu ahal izateko aukera galtzen du. Onarpen-ezagatiko atzerabideko akzioa galdu arren, mugaeguna iristean, edukitzaileak igorpenduari ordainketa egin dezan eska diezaioke eta, ordaindu ezean, ordainketa-ezagatiko atzerabideko akzioa jarri ahal izango du. Baina letraren onarpenerako aurkezpena egitea nahitaezkoa denean, onarpen-ezagatik dagokion protestoa ez altxatzeak atzerabideko akzio guztien galtzea dakar (LCCh 63.I.b art.): onarpen-ezagatikoak eta ordainketa-ezagatikoak.

3. GANBIO-LETRA TRANSMITITZEKO MODUAK

Ganbio-letra berez *agindurako* balore-titulua denez (*título valor a la orden*) endosu bidez transmititzen da (LCCh 14.I art.). Honek esan nahi du ganbio-letraren titular legitimoa izateko beharrezkoa dela letra edukitzea eta letra hori endosu-kate erregularraren bitartez eskuratua izatea (LCCh 19. art.). Endosua transmisioa egiteko modu ziurra da eta arina, Kode Zibileko kredituen lagapen-sistemarekin gonbaratuz gero. Endosuarekin ez da beharrezkoa transmisioa zordunari jakinaraztea eta, gainera endosu-hartzaileak ganbio-letrako eskubide guztiak eskuratzen ditu (LCCh 17.I art.), zordunak ezin diolako aurreko edukitzailearen aurka izango luken (*exceptio*) salbuespenik jarri (LCCh 20. art.).

Hala ere posible da ganbio-letra kredituen lagapen-sistema arruntaren bidez transmititzea. Hau gertatzen da '*agindura ez*' (*'no a la orden'*) klausula tartean

denean (LCCh 14.II, 24. art.) edota aurrerago azalduko ditugun beste inguruabar batzuegatik (LCCh 23.I art.). Transmisio honetan Kode Zibileko eraentza aplikatuko da (KZ 1527, 1528. art.). Orduan zordunari lagapenaren berri eman behar zaio. Honek lagapenaren berri izan gabe, lehengo hartzekodunari ordainduz gero, ordainketa baliozkoa izango da eta bere zorretik aske geratuko da. Gainera, lagatzaileak ezin izango dio lagapendunari berak duena baino eskubide hobeagorik transmititu. Honek esan nahi du transmisioa lagatzailearen egoera juridikoaz baldintzatua egongo dela (hau ez da gertatzen endosuarekin, endosu-hartzaileak egoera juridiko zehatz eta autonomo bat eskuratzen baitu) eta zordunak lagatzailearen kontra dituen (*exceptio*) salbuespen pertsonal guztiak jarri ahal izango dizkiola lagapendunari. MK 347 eta 348. artikuluetan jasotakoaren arabera, posible da ere gambio-letraren lagapen arrunta egitea (LCCh 24. art.).

Baina, esan bezala, endosua da gambio-letra transmititzeko ohiko modua. Endosua dokumentuan egindako deklarazio ganbiarioa da, beraz, letran endosu-klausula bete eta endosugileak sinatu egin behar du (LCCh 16.I art.). Hauxe da endosua egiteko gutxienezko ukanbehar formala. Beste datu batzuk ere adierazten dira: endosu-hartzailea, bere helbidea, endosua egin den lekua eta data, endosugilearen helbidea. Guztiak ipiniz gero *endosu bete*a dela esaten da eta endosu-hartzailearen izenik ipintzen ez denean *zurizko endosua* esaten zaio (LCCh 15.III, 17.II art.). Formaltasun hauek betetzeaz gain, beharrezkoa da baita ere tituluaren entrega edo transmisio materiala (*traditio*) egitea. Endosua egozgarria izan dadin aurretiazko akordioaren bat behar du endosugile eta endosu-hartzailearen artean. Akordio honek ekarriko du endosu-klausula osatzea eta letra entregatzea.

Endosu bidezko transmisioaren objektu dira gambio-letratik eratorritako eskubide guztiak (LCCh 17.I art.) eta baita letra beraren jabetza ere. Endosuak transmisio-funtzioa betetzen du, baina funtzio honen edukia desberdina izan daiteke endosu-motaren arabera. *Osoko endosua* (*endoso pleno*) da endosuaren ondorio guztiak sortarazten dituen eta izan daiteke *betea* (*completo*) ala *zurizkoa*, endosu-hartzailearen adierazpena falta bada. *Endosu mugatuak* (*endosos limitados*) dira efektu murriztuak dituztenak, efektu batzuk dituzte bakarrik. Hauek dira *ahalduntzeko endosua* (LCCh 21. art.) eta *bermezko endosua* (LCCh 22. art.). Endosu partziala, berriz, deuseza da (LCCh 15.II art.).

Dena den, zenbait kasutan endosua egiteak kreditu-lagapen arruntaren efektuak sortzen ditu. Batetik, igortzaileak letran ‘*agindura ez*’ klausula ezartzen baldin bada eta endosu bidez transmititzen bada, endosua baliozkoa izango da baina kreditu-lagapenaren efektuak izango ditu (LCCh 14.II art.). Bestetik, ezgaraiko endosuak ere, ordainketa ezagatikoko protestoaren edo deklarazio baliokidearen ondoren edota protesta altxatezko epea iragan ondoren egindakoak, kreditu-lagapenaren efektuak ditu (LCCh 23. art.).

4. OSOKO ENDOSUA

Osokoa eta betea den endosua da legeak eredutzat hartzen duena, endosuak sortarazten dituen ondorio guztiak dituen (LCCh 14. art. e.o.), endosu mugatuekin gertatzen ez den bezala. Endosuak kontratu izaera du (entrega-kontratua) eta kontratu hau burutzeko beharreakoak dira bi elementu: batetik, dokumentuan egindako deklarazio ganbiarioa, endosugilearen sinadura bidez adierazten dena eta, bestetik, tituluaren transmisio materiala, endosugileak letra entregatzea eta endosu-hartzaileak jasotzea (*traditio*).

4.1. Formazko ukanbeharrak eta supostu bereziak

Letra ‘*agindurako titulua*’ da (*título a la orden*), legez dauka agindurako eraginkortasuna (LCCh 14.I art.). Igortzaileak ‘*agindura ez*’ klausula ipintzean galtzen du aipatutako eraginkortasuna, baina kasu hau arau orokorraren salbuespena da. LCCh 14.II artikulua azaltzen digu ‘*agindura ez*’ klausularen efikazia berezia. Kasu honetan, kreditu-lagapen arruntaren bidez transmitituko da ganbio-letra. Endosuaren klausula ganbio-letran bertan (atzekaldean) edo eranskinean (LCCh 13. art.) jar daiteke eta endosatzaileak sinatu behar du (LCCh 16.I art.). Hauek dira gutxieneko formaltasunak. Gero beste adierazpen batzuk ere egiten dira: endosu-hartzailea, bere helbidea, endosua egin den lekua eta data, endosugilearen helbidea. Endosu-hartzailea, igorpendua, igortzailea edo ganbio-letra bidez obligaturiko beste edozein pertsona izan daiteke eta hauek berriz endosu egin dezakete (LCCh 14.III art.). Baina onartzaileak ezin du mugaegun ondoren endosurik egin (LCCh 23.I art.).

Endosuak baldintzarik gabekoa izan behar du (LCCh 15.I art.). Honekin, zuzenbide ganbiarioan trafikoaren zihurtasuna babesteko ohikoa den printzipioa errepikatzen da. Gogoratu, adibidez, LCCh 1.2 artikulua (igorpenean baldintzak jartzeak ganbio-letra izatea galeraziko luke) edota LCCh 30.

artikulua (baldintzek onarpena izatea galerazten dute). Dena den, baldintzak ipintzearen ondorioa ez da endosuaren inexistentzia, baldintzena baizik (LCCh 15.I art.) kontrakoak trafikoaren zihurtasunerako ekarriko lituzken ondorio ezezkorengatik. Gainera endosua totala izan behar du, endosu partziala deuseza da (LCCh 15.II. art.). Hau ulergarria da, kreditua zatitu eta hartatik endosu anitz egiteak ekarriko lituzkeen arazoengatik. Kreditua bat da eta obligatu ganbarioek harekiko hartzen dute dagokien obligazioa. (Posible da ordea, endosua modu solidarioan jasoko duten pertsona anitzeri zuzendua izatea, espresuki hala adierazten bada, K.Z. 1137.art.)

Ezgaraiako endosua

Oro har, mugaegunaren ondoren endosu egitea posible da (LCCh 23.I art.), salbuespen batekin: edukitzailea onartzaile bada ezin du egin. Kasu honetan hartzekoduna eta zorduna pertsona berbera direnez, kreditu ganbarioa iraungi egiten da. Beraz, ezin da endosurik egin.

Baina gerta daiteke endosua ezgaraian egitea (*endoso extemporáneo*), hau da, ordainketa ezagatik protestoa edo deklarazio baliokidea egin ondoren edota protestoa altxatzeko epea iragan ondoren. Orduan, endosu bidezko transmisioa baliozkoa izango da, baina kreditu-lagapenaren efektuak edukiko ditu (LCCh 23.art.). Ondorioz, aspektu formalei lege ganbarioa aplikatuko zaie eta transmisioaren efektuei dagokienez, zuzenbide zibila (KZ 1527, 1528 art.). Hau gertatzen da aipaturiko kasu hauetan zirkulu ganbarioa agortu egin delako, amaitu egin da. Beraz, letraren tituludunak duen egoera juridikoa baino ezin du transmititu.

Azkenik esan behar da, datarik gabeko endosuaren kasuan, aurkako froagarik ezean, letra endosagarri den epe barruan egin dela uste izango dela (LCCh 23.II art.). Beraz, protestorik altxa ez bada presuntzio honek jokatuko du. Baina protestoa altxatuz gero, bertan agertuko da endosua (protestoaren aurretik egindakoa bada). Protestoan endosurik ageri ez bada, protesto ondoren egin denaren seinale da eta kredituen lagapenaren efektuak izango ditu (LCCh 23.I art. *in fine*).

Zurizko endosua

Zurizko endosua esaten zaio endosu-hartzailearen adierazpenik ez duenari (LCCh 16.II. art.). Oro har, endosu-hartzailea izan daiteke igorpendua, igortzailea, edota ganbio-letra bidez obligaturiko beste edozein pertsona eta hauek berriz endosu egin dezakete (LCCh 14.III. art.). Baina badago salbuespen bat: onartzaileak ezin du mugaegun ondoren endosurik egin kreditu-eskubidea iraungi egin bait da (LCCh 23.I art.). Hartzekodun/edukitzaileak eta zordun/onartzaileak bat egiten dute. Momentu horretan ordainketarako obligatu zuzena eta hartzekoduna pertsona berbera da eta berak ordainduz gero gainontzeko obligazio ganbiario guziak iraungi egiten dira.

Zurizko endosua izan arren, hau da endosu-hartzailearen izenik adierazten ez duena, ganbio-letraren atzekaldean endosugilearen sinadura jartzea beharrezkoa da. Beharrezkoa ez dena endosu-hartzailea adieraztea da, ezta eskubideaz baliatzeko momentuan ere (LCCh 19.I art.). Gainera posible da endosua *'eramaleari'* egitea, hau zuriz egitea bezala da (LCCh 15.III art.). Zurizko endosu baten aurrean, endosu-hartzaileak honako aukera hauek ditu (LCCh 17.II art.): i) endosua bete bere izenarekin (orduan endosu-hartzailea bera izango da) edota beste batenarekin (orduan endosu-hartzailea bestea izango da, baina bera ez da endosugile izango); ii) ganbio-letra berriz endosatu, zuriz ala endosu-hartzailea adieraziaz (rduan bera bai da endosugilea); iii) ganbio-letra hirugarren bati entregatu, endosurik osatu gabe eta endosatu gabe (orduan bera ez da endosugile izango).

4.2. Funtzioak

Endosuk hiru funtzio betetzen ditu: transmisio-funtzioa, legitimazio-funtzioa eta berme-funtzioa. Ondoren aztertuko ditugu.

Transmisioa

Gero ikusiko dugunez, hau legitimazio-funtzioarekin lotuta dago. Ganbio-letraren transmisioak bi ikuspegi ditu: batetik, dokumentuaren jabetza transmititzea eta, bestetik, dokumentuan jasotako eskubide ganbiarioen (ez kausalen) titulartasuna transmititzea. LCCh 17.I artikulua *a contrario* interpretatuaz, letraren *traditio* hutsak ez dizkio letra eskuratzen duenari

zuzenean eskubide ganbiarioak transmititzen. Horretarako endosua behar da, hau da, formaltasun batzuk betetzea (endosu-klausula) eta dokumentua entregatzea. Hori eginez gero, endosu-hartzaileak eskuratzen ditu: kreditu ganbiarioa obligatu ganbiario diren guztiei galdatzeko eskubidea eta kreditu ganbiarioa xedatzeko eskubidea (adibidez, berriz endosatzea).

Endosuaren bitartez endosu-hartzaileak eskubideak modu autonomoan eskuratzen ditu. Bere egoera ganbiarioa aurreko edukitzaileek zuten posizio juridikoarekiko independentea da. Baina erregela honek baditu bere mugak (LCCh 20. art.). *Inter partes*, azpiko harreman kausaletik eratorritako (*exceptio*) salbuespenak bai jarri ahal izango dira. *Inter tertios*, printzipioz auziperatuak edukitzaileari ezin izango dio berak beste obligatu ganbiario batekin dituen harreman kausaleko salbuespenik aurka jarri. Hori egitea posible izango da edukitzaileak salbuespen horiek ezagutuz eta zorduna kaltetu nahian eskuratu izan balu ganbio-letra (*exceptio doli*). Zordunak frogatu beharko du *exceptio doli*.

Ondorio hauen justifikazioa da, fede onez letra eskuratzen duen hirugarrena babestea. Letrak trafiko ekonomikoan funtzionatu ahal izateko gutxienezko baldintza batzuk ipintzen dira alde horretatik. Azkenik esan, zurizko endosua ere transmisiozko efektu guziak dituela (LCCh 17.II art.) Endosu-hartzaileak zurizko endosua bere edo beste pertsona baten izenarekin osa dezake eta letra transmititu dezake.

Bermea

Endosatzailak onarpena eta ordainketa bermatzen du ondorengo edukitzaileen aurrean, aurkakoa adierazten duen klausularik agertu ezean (*'nire erantzukizunik gabe'*, *'sin mi responsabilidad'*) (LCCh 18.I art.) Ikus dezakegunez, igortzaileak ordainketa derrigorrez bermatzen badu ere (LCCh 11.art.), endosu-hartzaileak ez ditu ez ordainketa ez onarpena derrigorrez bermatzen. Baina, ez bada bereziki ezer aipatzen, igortzaileak bazala, bermatu egingo ditu. Bermezko efektu honen erabilpen praktikoa inportantea da, ganbio-letraren zirkulazioa errazten baitu.

Baina posible da ermezko efektua ezabatzea. Efektu hau ez da funtsezkoa, endosugileak ekidin dezake (ez da gauza bera gertatzen transmisioarekin eta legitimazioarekin). Horretarako aukera desberdinak daude. Bata da aipatu

dugun ‘*nire erantzukizunik gabe*’ klausula (LCCh 18.I art.). Beste aukera da ‘*endosu berririk gabe*’ klausula (LCCh 18.II art.). Honekin endosatzaileak, endosu berri bat egitea debeka dezake eta orduan, letra berriz endosatzen bada, berak ez du ondoren endosatu izan zaien pertsonetikiko erantzukizunik hartuko.

Legitimazioa

Transmisio-efektua legitimazio-efektuarekin osatzen da. Endosuaren bidez, letraren aurreko edukitzailearengandik eskubide batzuk jasotzen dira (transmisio-efektua) eta eskubide horiek nork egikari ditzaken zehazten da (legitimazio-efektua) (LCCh 19. art.). Gai honen inguruan, bi dira kontuan eduki beharreko interesak: batetik, hartzekodunak duen interesa bere eskubide legitimoa erraz frogatzeko eta, bestetik, zordunaren interesa hartzekodun legitimoa erraz identifikatzeko, soilik hari egindako ordainketa izango baita liberatorioa beretzat (KZ 1162. art.). Ganbio-letran pertsona anitzek parte har dezketen eta zordunak (baita igorpenduak ere) ordainketa nori egin behar dion jakin nahi du ziurtasunez. Bestela, bera libratzen ez duen ordainketa egiteko arriskua izango du eta gero benetako hartzekodun legitimoari ordaindu beharko dio.

Hartzekodun legitimoa identifikatzeko erregela orokorra LCCh 19. I artikuluan daukagu. Legearen ikuspegitik legitimazio substantziala legitimazio formala. Presuntzio hori ezartzen du eta formalki letraren hartzekodun legitimoa nor den jakiteko irizpideak ematen ditu. Horretarako beharrezkoa da, ganbio-letraren edukitzailea (*tenedor*) izatea, baina hori bakarrik ez da nahikoa. Edukitzaile legitimoa izango da, gainera bere eskubidea etendurarik gabeko endosu-kate erregularrari esker justifikatzen duena, baita azkeneko endosua zuriz egin denean ere (LCCh 19.I art. eta 46.III *in fine* art.).

Ikus daitekenez, zordunak (igorpenduak ere) legitimazioaren inguruan egin behar duen kontrola formala da, itxura juridikoan oinarritua. Begibistan ageri den transmisio-katearen erregularritasuna ikuskatu behar du. Formalki, izenen eta sinaduren arteko lotura eta katea erregularra ote den konprobatzea eskatzen zaio. Ez zaio eskatzen izen eta pertsonen arteko lotura, hau da, sinadura autentikoa den konprobatzerik (LCCh 46.III *in fine* art.).

Ondorioz, zorduna aske geratuko da formalki letraren hartzekodun legitimo bezala agertzen denari ordainduz gero (substantzialki kredituaren titular izan ala ez). Konprobazio formala egitea besterik ez zaio galdatzen. Beraz, endosu bidez legitimazioaren froga errazte hau oso baliagarria da hartzekodunarentzat, dokumentuak (haren itxurak) bere titulartasunaren froga erraztuko diolako. Abantailatsua da baita ere zordunarentzat, ez baitu hartzekodun legitimoa identifikatzeko ikerketa berezirik egin behar. Erraz jakin dezake nor den hartzekoduna eta hari ordainduaz lortuko du zorra behin-betirako gainetik kentzea.

Baina erregela orokor honek baditu bere mugak. Erregularitasuneko itxuraren azpian irregulartasunak ezkuta daitezke, horregatik muga batzuk ipintzen dira eta kasu horietan aipaturiko erregela ez da aplikagarria izango.

- Irregularitasunak kontratu kausalaren ingurukoak direnean, hirugarrenari aurka jarri ahal izateko, honek doloz jardutea gertatu behar da (LCCh 20. art.).
- Irregularitasunak letraren *entrega* kontratuaren igurukoak direnean, berriz, hirugarrenaren aurka jartzeko, honek fede txarra edo erru astuna izatea galdatzen da (Ik. LCCh 19.II art. eta osatu 12 eta 46.III artikuluekin). Edukitzaile berria, edozein kausagatik (bere borondatez ala borondatearen aurka) edukitza galdu duenaren alderdikidea, fede txarrekoa izango da transmisioko irregularitasuna ezagutzen bazuen eta orduan ez da hartzekodun legitimoa izango

Poblema zera da, fede txarreko edukitzaileak legitimazioa eman diezaiokela fede oneko hirugarren bati. Honela sistema ganbarioa Kode Zibiletik (KZ 464.art.) alden du egiten da eta '*a non domino*' jabetza eskuratzea onartzen du. Adibidez, bi endosuko kate batetan, ikusten ez den transmisioko irregularitasuna lehen endosuan egon bada, edukitzaile berria edukitza galdu duenarekiko fede oneko hirugarrena izango da, irregularitasun hori ezagutzen ez zuelako, beraz hartzekodun legitimoa. Are gehiago, hiru endosuko kate batetan, azken edukitzailea ere fede onekoa izango da nahiz eta lehen endosuko irregularitasuna ezagutu. Ganbio-letra bigarren endosugilarengandik kobratu eta itzuli diezaioke eta honek edonori eska diezaioke ordainketa.

Pertsona batek, edozein arrazoigatik, ganbio-letraren edukitza galtzen duenean edukitzailea ez dago ganbio-letra itzultzera behartuta, baldin eta fede onez

eskuratu badu, hots, berari transmititu dion pertsona legitimatuta zegoenaren ustean jaso izan badu (LCCh 19.II art.). Sistema honen bidez, fede txarreko edukitzaileak (frogatu ezker) sekula ez dira babestuko. Edukitzailearen fede txarra (transmisioaren irregulartasuna ezagutzen zuela) frogatzea zordunari dagokio, bera da legezko presuntzioa edo ustea deuseztatu behar duena. Edukitzaileak letra aurkeztearekin nahikoa du eta zordunak, printzipioz, formalki legitimatua dagoen edukitzaileari ordaindu behar dio. Hala egiten badu, bere obligaziotik aske geratuko da, beti ere edukitzailearen legitimazioa ikuskatzerakoan doloz edo erru astunez jardun ez badu behintzat (LCCh 46.III art.).

Ondorio guzti hauek gertatu arren, benetazko jabearen eskubideak eta akzioak salbu egongo dira, jabetza kendu izan dionaren aurka ekiteko. Edukitza galdu duen tituludunak epailearengana joateko aukera dauka ganbio-letraren amortizazioa eskatzera, hau da, tituluaren eraginkortasunik eza deklaratu dezan eskatzera. Baina, horretarako arin erreakzionatu behar du, epai bidez letra amortizatuta deklaratu arren, LCCh 19.II artikuluan xedatutakoak duelako lehentasuna (LCCh 87. art.).

5. ENDOSU MUGATUAK

5.1. Ahalordetzeko endosua

Endosua soilik kobrua lortzera bideratua (mugatua) dagoenean, kobrurako baimena besterik ez da. Hauxe da endosu mota honen erabilpena (LCCh 21. art.). Endosugileak ez du ganbio-letraren eta kreditu ganbiarioaren jabetzarik transmititu nahi. Hemen ez dago transmisio funtziorik. Ganbio-letra endosuhartzaileari entregatzen dio, soilik kobrua egin dezan. Horrela kobrurako legitimatuta egongo da.

Horren azpian ahalordetze-harreman bat dago, ageriko forma ganbiarioa izan arren endosuarena. Endosu-hartzailea legitimatzen da formalki letratik eratortzen diren eskubide guztietaz baliatzeko, baina ez du hartzekodun ganbiario izaerarik hartzen, endosugilearen ordezkaria izango da. Ondorioz, *inter tertios* zordunak edukitzaileari aurka jarri ahal izango dizkio endosugilearen aurka dituen (*exceptio*) salbuespenak. Bestalde, *inter partes* endosu honek ez du bermezko efekturik endosugilea ez da edukitzailearekiko obligatu ganbiario.

Ahalduntzeko endosua egiteko beharrezkoa da expresuki letran hala esatea ('*ahalordez*', '*valor al cobro*', '*para cobranza*', '*por poder*'). Ahalduntzeko endosua isilpean egiten bada, (adibidez, *inter partes* azpiko kontratua kobrurako mandatua bada) eta formalki osoko endosuaren itxura ematen bazaio LCCh 21. artikulua ez da aplikagarri izango. Baina honek ere badu bere muga. Demagun endosua fede txarrez egin dela, zordunak endosugilearen aurka izan zitzaken salbuespenak ekiditeko. Orduan zordunak endosuhartzaileari aurka jarri ahal izango dizkio endosugilearen kontra dituen salbuespenak (LCCh 20.art.).

5.2. Bermezko endosua

Endosu honen bitartez, ganbio-letran bahiturazko eskubide bat ezartzen da (KZ 1863, 1866 art.) azpiko harremaneko ordainketa bermatzeko (LCCh 22. art.). Letraren edukitzaileak bahiturazko eskubidea egikaritu ahal izango du letra kobratuaz (judizialki ala extrajudizialki). Edukitzaileak letratik eratorritako eskubide guziak egikari ahal izango ditu, baina berak eginiko endosua soilik kobrurako endosuaren balioa izango du. Ondorioz, zordunak ezingo dio edukitzaileari endosugilearen aurka zituen (*exceptio*) salbuespenik jarri, beti ere edukitzaileak fede txarrez jokatu ez badu.

Endosu honek efektu mugatuak ditu, endosu-hartzaileak ez duelako letrako kredituaren xedagarritasun osoa eskuratzen. Letraren xedagarritasun osoa izango du soilik, bermatutako kredituaren epemuga letraren epemuga baino lehen betetzen denean. Orduan osoko endosu bat egin ahal izango du, beti ere, bere legitimaziorako formaltasun guziak betetzen baldin badira.

Bermezko endosuan, endosu-hartzaileak posizio juridiko propioa hartzen du endosugilerekiko. Baina horrek ez du esan nahi bere posizioa berme-funtzio horretatik eratorritako beste mugapen batzutara lotua ez dagoenik. Nahiz eta bere posizioa autonomoa izan, osagarritzkoa da. Endosugileak ez du endosuhartzailearekiko osoko endosuan ohikoa den berme-funtziorik hartzen, endosugile eta endosu-hartzailearen posizioak ez bait dira erabat independenteak.